

EUSKAL HERRIA HELBURU

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi
Txalaparta, Tafalla, 1994

Euskal Herriaren historia garaikidea sakon markatu duten pentsalarien zerrenda osatzekotan, lehenengoetako postuetan Txillardegi azalduko litzateke, zalantza izpirik gabe. Hori dela eta, liburu berri honek hausnarketak berezi bat merezi duelakoan ekingo diogu hurbilpen xume bati.

Funtsean, liburu honek ez dakar inolako berritasunik bere lan eta artikuluak jarraitu dituen inorentzat; ziur aski duen baliorik haundiena bere pentsamenduaren azalpen sistematikoa eskaintzea da, bizitzan zehar egunez egun eta lerroz lerro landu dituen hiruzpalau kezka nagusien irakurketa (hitzaren zentzurik jatorrizkoenean). Hortaz landara, zenbait bitxikeria, zenbait pasadizu, zenbait zehaztapen eta bindikazioren bat edo beste. Ohizko idaztanka solte, irakurterrez eta zorrotza, oso egokia denborapasa irakurtzeko, ur haunditan menturatu gabe. Baina era berean liburu sakona bere lerroetan zehar gure historia hurbilaren zenbait giltza aurkitu nahi duenarentzat. Gu, ahal dela, muinari lotuko gatzazkio, ñabardurak eta pasadizuak beste tenore batetarako utziz.

Txillardegi baitan, ezaguna denez, sustraiean eta ororen buru, hizkuntzari buruzko kezka dago: «gizona, hitz batez, funtsean bertan eta arras, hizkuntza-tasuna da», idatzi zuen

orain dela urte batzuk bere entseiu teoriko sonatuenean (*Hizkuntza eta pentsakera* Bilbo: Mensajero-Etor, 1972, 99. or.). Horixe da bere pentsamenduaren oinarri "cartesiarra", hortik abiatzen da, eta hori kontutan hartu gabe ez dago ezer ulertzerik. Baina hori emanik, bere pentsabide osoa abiapuntu horretatik beste arazo batzuetara eramaten du, herrigintzarekin (aberrigintzaren sinonimoa berarentzat) lotura zuzen eta berehalakoa duten kontuetara. Pentsamendua ekintzarekin eta hau pentsamendurekin etengabe lotzeko ohitura izan duenez gero, bere bizitzaren kronika eta bere ideien azalpena bat bera da, hein haundi batean. Horrela agertzen zaigu liburu honetan, zeinean bizitzaren gora-beherak egilearen kezka intelektualen arabera harilkatuak baitauden. Hauek, bere mundualdi osoan zehar (eta baita gaur egun ere!) bi ardatz nagusien baitan laburbiltzen dira, alegia, *jatorrizko batasuna* eta *karlismoa* izenekin bataiatu ditudanak. Kontzeptu bi hauen deskribapenak emango digu Txillardegiren pentsamenduaren giltza, biak baitira liburu osoan zehar kontatzen zaigun guztia- ren funtsa. Zilegi bekit bien definizio labur bat eskaintzea, gero liburuaren kritika atalez atal burutzerakoan zehaztapen zorrotzagoak eskaini asmoz.

Txillardegirentzat egungo Euskal Herria ahulduta eta erdi-deseginik

dagoen herri zaharra da; baina ez da beti horrela izan, jatorrian, bere historiaren hastapenean, Euskal Herria herri oso eta arrunta baitzen, alegia, bere hizkuntza eta lurralde propioari esker herri-nortasun bete zuen herria. Kanpoko eraso bortitz eta etengabeak izan dira bere nortasuna (hizkuntza) poliki-poliki higatzen joan direnak, eta era berean bere lurrez gabetzen, bere lurraldean bertan euskalduna arrotz bihurtu arte. Bertako elite politiko-ekonomikoen (burgesia, batez ere) traizioa ere garrantzitsua izan da desnazionalizazio-prozesu honetan. Gauzak horrela, abertzale guztion eginkizuna jatorrizko batasuna berrosatzea da, kanpoko eraso eta bertakoen traizioaren aurka borrokatuz. Era berean, etorkinak euskaldundu behar dira, batasun horretan osorik integratuz. Horretan ihardun du berak bere bizi guztian.

Karlismoari dagokionez, kontzeptu politikoa da errotik, eta esan nahi du karlista zaharren eta EAJ/PNVren artean zegoen lotura eta azken hauen eta Ezker Abertzalearen (ETA) artean dagoena berdin-berdina dela, alegia, bata bestearengandik jaio bazen ere (ez zuzenean, baizik bilakaera historikoaren ondorio gisa), erabat bere aurrekoaren aurka jaio zela, bien helburuak erabat antagonikoak direlarik. Hau da, PNV eta Ezker Abertzalea erabat antagonikoak dira, PNV eta karlista zaharrak erabat antagonikoak ziren bezala mende hasierako Euskal Herrian (zer esanik ez Gerra Zibilean). Ondorioz, Txillardegiren arabera, karlistak izan ziren Euskal Herriaren erreibindikazioen eramale legitimo eta bakarrak XIX. mendean, fase historiko berri batean PNV jaio arte; ondoren, beste mende erdi batean jeltzaleak izan ziren herriaren askatasun-gosearen eramaleak fase historiko berri bati

erantzunez ETA jaio zen arte. Egun, beti ere donostiarrari segituz, Ezker Abertzalea da Euskal Herriaren proiektu historikoaren eramalea, eta PNV gaudituta dago, PNVren jaiotzaren ondoren karlismoa gaudituta zegoen bezala.

Baina goazen atalez-atal. Esana dagoenez, ñabardurak gora-behera, atal biografikoak eta "teorikoak" bereiztezinak dira liburu honetan, eta susmatzen dudanez, baita Txillardegiren bizitzan ere. Alabaina, liburua *Hitzaurre* biografiko batekin irekitzen da, zeinean gauzarik aipagarriena ondoko aldarrikapena den: «Euskal belaunaldi abertzale baten lekukotasuna izan nadi dute lerro hauek» (15 or.). Aipagarria da egileak liburuan zehar bere burua belaunaldi baten barruan kokatzeko egindako etengabeko ahalgina, nik neuk bere pertsonalitate indartsu eta berezia ororen buru jarriko banu ere: Txillardegi da egun gure artean barra-barra dabilen ideia eta eztabaida ugariren formulatzaile argiena, eta nor bere sasoiaren umea dela egia bada ere, ez geundeke zuzen berak duen aitzindaritzan belaunaldi baten barruan urtuko bagenu. Nori berea.

Ondoko sei ataletatik lehenean agertzen da garbien *jatorrizko batasuna* izenarekin bataiatu dudana kontzeptua. Izenburua adierazgarria da: *Atzeraka*. Horixe izan omen da gure patua ia-ia historiaren hastapenetik: kanpotarren erasopean atzeraka. Ohar bedi irakurlea *de facto* proposatzen zaigunaz: herri gisa bagenuen jatorrizko batasun bat, hizkuntzak eta lurraldeak emana, eta egun norbaitek hori zalantzan jartzea edo gaiztakeria da, edo ezjakintasuna. Emanik hori, gure jatorrizko batasunaren defentsari ekiten dio argudio zientifikoak erabiliz,

batez ere toponimia historikoaren alorrekoak. Iruzkina honen egilea ez da gai argudio horien balorazio bat egiteko, baina garrantzitsua deritzot bere testuinguruan kokatzeari, hots, Euskal Herriaren naziotasuna ukatzeko egin diren mila eta bat saio burutsu eta “zientifikoaren” aurkako borroka dialektikoan. Alde horretatik osasungarria da era honetako azalpen jantziak irakurtzea, ez bakarrik ikuspegi abertzale batetik, baita ere aspaldi honetan gero eta indar haundiagoz zabaltzen ari den ezjakintasun anpuru eta lotsagabe bati aurre egiteko tresna gisa («euskara ez da inoiz hitz egin Araban», eta tamaina horretako astakeriak). Alabaina, beldur naiz era honetako baieztapen zientifikoak, eztabaidaezinak balira ere (eta zenbait kasutan, autrigoiaren euskaltasunarekin bezala, franko eztabaidagarriak omen dira) ez ote duten egungo problema erreala batzuen estalgarri gisa funtzionatzen, adibidez, euskaldun izan nahi ez duten baskoen arazo arantzatsua. Gero itzuliko gara honetara.

Bigarren atalean (*Cueste lo que cueste*), berriz, karlismoa deitu dudaren azalpena da gai nagusia. Azaleko irakurketa batean hau da aurkituko duguna funtsean: bi gerrate karlisten interpretazio nazionalista, hau da, euskaldun eta espainolen arteko gatazka gisa, azaleko legitimismoaren azpian arazo nazionala zegoelako tesia. Aurreko atalean ez bezala, argudioak ez dira oso sendoak (beren zientifikotasuna nabarmenki jeisten da), baina esango nuke badagoela arrazoi nahikorik tesi nagusiari eusteko, begibistakoa baita. Alegia, gerra karlistetan osagai nazional/nazionalista (edo aurrenazionalista) ikusten ez duena, edo itsu dago, edo ez du ikusi nahi (biotatik dago erruz gaur egun); gertakari hori ukatzeko

zenbaitek darabilen seta ez da prezeki irizpide hotz eta orekatu baten erakusgarri. Baina era berean, gerra karlistetan arazo nazionala baino ez ikustea, kapitulu honetan gertatzen den bezala, ximplekeria nabarmena da, eztabaida dialektiko baten harian egiten bada ere; finean, aurreko atalean bezala, Euskal Herriko barne-gatazkei ihes egitea, egilearen buruan baino ez dagoen ustezko batasun euskaldun baten ametsetan. Alabaina, planteamendu askoz ere konplexuago baten lehenengo zantzuak ere ematen zaizkigu. Adibidez:

[Klase agintarien ondotik] herria ere prest zegoen ‘harakiri’ etnikoa egiteko; horren irrikan bizi zela esatea hobe litzateke, frantses zein espainiar zintzo eta leial bihurtzeko. Baina nazio-projektu arrotz eta bikunaren onarpen horrekiko, aurrez aurre kontrajarriak, kontraesan guztizkoan, beste errealtate hau agertzen zen sendo: bere objektibitate hertsia eta itsuan, Euskal Herriak zirauen hor. Alegia, sorkuraz etxe-zoletan euskaraz mintzo zen herria (102 or.).

Hots, jatorrizko batasuna galdurik, desnazionalizazio-prozesu azkar baten barruan bizi den herria, berau ikaragarriko gatazka kontraesankorren artean gertatzen delarik. Nabardura honetaz gain, lehenengo aldiz agertzen zaigu testuan gero garrantzi nabarmena izango duen beste kontzeptu bat: alienazioa, euskaldunen alienazioa; eta gaitz horren kontrako salbabidea: abertzaletasunaren sorrera, finean karlismoak suposatzen duen alienazioarekin hautsiz. Txillardegirentzat Arana Goirirekin karlismoaren zikloa bukatu da: hortik aurrera indar alienatzailea bihurtzen da, geroko PNV bezalakoxea: «Itxurak aldaturik ere, oso egoera antzekoan egon da Euskal Herria behin eta berriz». (124 or.).

Bi atal hauek, hala ere, sarrera teoriko bat baino ez dira ondoko ataletan planteatuko diren arazoei aurre egiteko, oinarri finkatze bat, nolabait. Tresna horiekin horniturik egin zion aurre Txillardegi gazteak herri baten gainbehera itzelari.

Hirugarren eta laugarren ataletan liburuak bizitasuna irabazten du: zatirik autobiografikoenak dira, eta zenbait pasadizuren bidez saiaturiko da aurreko bi ataletan teorizatutakoaren irudi bizi bat ematen. Euskarari dagokionez, gerraondoko giro euskaltzalearen deskribapena ematen digu, batez ere Euskaltzaindia ingurukoa. Hementxe aurkitzen dugu aurrekoaren froga praktikoa: Gerra Zibiletik aurrera, PNVren ziklo historikoa amaitu da, eta indar alienatzaile hutsa bihurtu da, gure herriaren nahiak bideratzeko errotik ezgaia. Orixez eskaintzen digun erretratua da horren erakuslerik nabarmenena: erreakzionario erdaltzale bat, horra Orixe, belaunaldi oso baten eredu eta erakusgarria, PNVren belaunaldiarena hain zuzen ere. Karlisten artean, berriz, zer esanik ez, benetako dinosauroen aurrean paratzen gaitu: Urkijo edo Azkueren erretratuek badute goxotasun apur bat (aurrekoan ez bezala), baina azken honen heriotza-ren kontakizunak balio psikologikoa du ene uste apalean (130. or.). Soluzioa gazte euskaltzale berriengandik etorriko da, PNVkoa ez den jendearengandik, alegia. Aranaren denboretan bezala haustura ezinbestekoa da. Horiek dira behin betiko euskarari status duin bat eskaintzen dioten lehenak (Euskaltzaindiaren bilerak euskaraz, etabar), eta euskara batua abiarazten dutenak. Bestiak, "apolitikoak" edo PNV ingurukoak, beti atzetik, beti trabak jartzen, beti zalantzasz beterik... Lafon, Mitxelena, Haristchelhar... itzal haundiko euskal-

tzainak, ez ditu oso leku ederrean uzten: «Askotan agertu da Euskaltzaindia koldar eta Franco'ren morroi, baiña gutxitan ausarta eta euskeraren zerbitzari» (165. or.). Baina, dudarik gabe, ikuspegi historiko batetik interesgarriena, "kulturalismoaren" salaketa da (nork eta Txillardegik!):

Hizkuntzak ez dira ahultzen edo gotortzen beren moldea edo barne-egiturarengatik, politikazko azkatasun ala menpetasunarengatik baizik. Azkatasunik ez duten herriak beren hizkuntza galtzen dute, eta politikaz menperatu dituzten erresumen hizkuntza hartzen (166. or.).

Euskararen etorkizuna politikaren esparruan erabakiko da. Ideia giltzarri honen formulazioa, dudarik gabe, Txillardegiri zor diogu. Ondo da gogoraraztea.

Eta hari honetatik tiratuz, iristen gara politikara, laugarren atalera, alegia. Atal berezia, zinez. Ideia giltzarria hauxe da:

Ajuriagerraren ustez Euskadiren soluzioa Ekin (eta gero ETA) desgertzeaz bestaldetik bilatu behar zen. Simetria osoan, guk ere Euskal Herriaren askakuntza, PNVren gainetik ikusten genuen. Hau egia da. Eta denborak arrazoi eman digu gero eta nabarmenkiago (190. or.).

Alegia, argi dago Txillardegirentzat PNV eta ETA (eta bere oinordekoak) PNV eta karlismo historikoa bezain bateraezinak direla; areago, harrigarria ez den bezala Gerra Zibilean karlistak Euskal Herriaren aurka paratzea, ez litzateke harrigarri PNVk gaur egun ere antzerako jarrera bat hartzea. Hortik baino ez da esplikatzen egileak PNVri buruz hartzen dituen jarrerak (karlistatzat jotzea edo ETAREN sorreran

PNVrekiko distantziak markatu nahi izatea, adibidez). Baina era berean (eta hau garrantzitsua da), Gerra Zibil aurreko PNVk bezala, ez du etsitzen bere kontrarioarekin akordio minimo batzuetara iritsi nahian, eta finean, politika independentista batera erakarri nahian (alperrik saiatu ziren jeltzaleak karlistak politika autonomista batetara erakartzen!). Harreman gatazkatsua, zinez, Txillardegirentzat (Aranarentzat karlistak bezala), jeltzaleak baitira euskaldunen alienazioaren errudun nagusiak eta, era berean, errezen beregana ditzakeen aberkideak. Biziki eskergarria da 1961ean Pariseko Jaur-laritzaren egoitzan eman zuen hitzaldi historikoa osorik transkribatzea, bertan aurki baitaiteke oso-osorik eta puri-purian ideia guzti hauen bilduma: PNV erdatzale eta "legitimista" bat, ahitua, ezgaia, zaharkitua, alienatua eta alienatzailea. Ikuspuntu honetatik zail baino zailago dirudi Fronte Nazional batetara iristea, hori izanik ere itxura batera proposatzen dena gaur egun ere.

Baina PNV-ETA harremanak gatazkatsuak izanik ere, Ezker Abertzale barrukoa ez da bareagoa. Aldez edo moldez, arazo honi dedikatzen dio Txillardegik liburu erdia, hau da, laugarren ataleko erdialdetik bukaerarainokoa. Liburuaren parterik aberatsena da ideia eta planteamendutan. Hasteko, etsai zahar baten salaketa kupidagabea: espainolismo ezkertiarra; ondoren marxismo-leninismoarekiko kontu garbiketa; eta bukatzeko, autodeterminazioaren afera. Hiruretan, hala ere, ez da deskribatu dugun marko teorikotik aterako.

Horrela, espainolismoaren salaketa funtsezkoa da, eta konprenigarria, Euskal Herriaren jatorrizko batasuna eta alienazio (desnazionalizazio)

progresiboa aldarrikatzen duen edonorentzat. Hala eta guztiz ere, ETA V.eko erdibitzearekin lotuta dauden lau txostenen transkribaketa osoa ezin egokiagoa da ideiak argitzeko. Batzuk azpimarratuko nituzke, gerora izan duten proiektioagatik. Bat, elite euskaldunen traizio historikoa:

El análisis histórico más elemental muestra que la situación de alienación económica y cultural, en que se encuentra Euzkadi, se debe a la traición completa de la clase dirigente vasca de los últimos siglos; es decir: a la traición indiscutible de la burguesía vasca (223. or.).

Bi, kapitalismoaren errefusapena: «ETA debe condenar el Capitalismo radicalmente, sin timidez alguna» (226. or.). Hiru, zonalde deseuskaldunduak:

Tenemos un enorme problema en las zonas deseuskerizadas del Sur de Euskal Herria, que no se sienten ligadas a nuestra causa (231. or.).

Lau, inmigrazioaren arazoa:

En una nación con Estado propio libre, la inmigración no es problema. En una nación oprimida y en vías de desaparición, la inmigración extranjera es, objetivamente, un peso cultural anti-nacional, pues es del mismo signo que el Estado opresor (243. or.).

Bost, oinarrian, jatorrizko batasunaren higadura: «La alienación nacional vasca es la alienación lingüística» (254. or.). Proposamena garbia zen:

Euzkadi precisa un movimiento vasco y progresista. Si ETA encarna esta doble exigencia triunfará; si no, traicionará al País y será barrida. Más claro agua (247. or.).

Era berean: «Hay que asimilar y vasquizar a la inmigración» (244. or.). Ez zen ez, desafio makala mugimendu berriak bere buruari ezartzen ziona; interesgarria litzateke begiratzea zertan ziren sasoi horretan beste alderdi historiko batzuen kezka teoriko-estrategikoak, uste ez badut ere inork tamaina honetako proiekturik planteatzen zuenik: nazioaren jatorrizko batasuna berrosatzea elite erdaltzaleak porrokatuz eta inmigranteen oldeak integratuz. Azken buruan, sakoneko arazoa herriaren alienazioa da, Txillardegiren arabera ez baita gai egoeraz jabetzeko. ETAren eginkizuna, berriz, alienazio sakon horri aurre egitea da:

El pueblo no encarna el futuro. Pero ETA debe encarnar la Euzkadi desalienada en todo [...] ETA debe encarnar el futuro de Euzkadi (235. or.).

Mereziko luke alienazio kontzeptu honetan sakontzeak: dudarik gabe marxismotik eratorria, batzuetan basako ez-euskaldunen multzoa izendatzeko erabiltzen du, bestetan euskaldun ez-abertzaleak edo PNV zaleak, bestetan, berriz, inmigrante espainolak; finean, ETAren asmoak (zentzu historikoan, noski, ez egungo egitura militarra) babesten ez duen guztia omen dago alienatua, itxura batera bederen. Akilesen orpora iritsi gara.

Hurrengo atalean egokituko zaio beste alienazio-mota bati aurre egitea: marxismo-leninismoari, alegia. Txillardegiren langintza politikoa azaletik baino segitu ez duenarentzat (hau da, HBko ordezkari edo ETAren aldezkari garbi gisa) harrigarria gerta daiteke duela gutxi arte (eta egun?) Ezker Abertzale barruan ia-ia eztabaia daezintzat jo den ideologiaren kontra hain gogorki oldartzea. Baina honetan,

gutxienez, inork ez dio ukatuko aitzindaritzza eta oreka. Dogmatismoaren eta autozentsuraren salaketa goiztarra erabatekoa da, norberaren pentsamendu-askatasuna garbiro aldarrikatuz. Eskergarria da, bestalde, Bertrand Russell edo Edgar Morin bezalako pentsalarien bindikazioa (Sartrerena ezaguna baitzen), ezker berri bat eraikitze bidean (marxismo-leninismotik at). Aldiz, apaiz eta fraile ezkertiar eta abertzaleen aurkako noizbehinkako purrustadak ez zaizkit egokiak iruditzen: penagarria da antiklerikalismoaren topikoan erortzea, zeharka bada ere.

Hola iristen gara azken atalera, non etorkizunari buruzko proposamena jaulkitzen duen:

Neure proposamena hitz bitara bildu nahi izanez gero, hauek botako nituzke: euskara eta autodeterminazioa (304. or.).

Biak iruzkin honen hasieran finkatu ditugun pentsamendu-ardatzen ondorio zuzenak. Errezenetik hasiz: autodeterminazioa aldarrikatzeak esan nahi du PNVren politika autonomista gaudituta dagoela; alegia, ez dela gai Euskal Herriaren beharrei erantzuteko eta, fase historiko honetan, alienazioa baino ez duela sortzen, XX. mendeko karlismoak bezala. Honen aurrean Fronte Nazionala aldarrikatzea ondo dago, baina beldur naiz PNVrik gabeko frontea izango den (Txillardegiren logikari segitzekotan, bederen, antagonikoa izango baita alderdi honen politikarekin). Hau garbi dago.

Euskarari dagokionez, berriz, arazo latz baten aurrean gaude, eta Txillardegik ez dio ihes egiten: «Galdera bakarra, hitz batez, hau da: Euskal

Herria, herria al da?» (310. or.). Erantzuna, noski, baiezkoa da, bi zutabetan oinarritzen delarik: faktore etnikoak eta herriaren nahia. Lehenengoak bilakae-ra historiko luze baten ondorio gisa ikusten ditu, eta funtsean bat bakarre-ra laburbiltzen ditu: hizkuntza. Bigarrena, berriz, ia-ia berezki jotzen du: «Eta normalean, kasu patologikotan ez ezik, etnikideak bere gizataldearekin egiten du bat» (310. or.). Arrazoibide honen ondorioz, euskara bera da gure naziotasunaren oinarri garrantzitsuena eta, era berean, ezinbestekoa. Nabarmena izanik, egun, herritar mordo batek ez dakiela euskaraz, zertan oinarritu gure naziotasuna? Erantzuna: «Kultur izaria falta bada, ez dago naziorik; baina nahiak bultza dezake berorren berreskurapena» (311. or.). Finean, oinarri etnikoak huts eginik ere (hizkuntzak, alegia), gure naziotasuna jatorrizko batasuna berrosatzeko dugun borondate inperatiboan oinarritzen da. Borondate hori autodeterminazioaren bidez bideratu behar da, alegia, herritarren nahi horri autodeterminazioa dagokio, eta beraren bidez, berreraikuntza nazionala, berreuskalduntzea. Azpimarratu beharrekoa da Txillardegirentzat (esana dagoenez lehenago), euskararen arazo politikaren alorrean ebatzi behar dela eta, beraz, urrun dela edonolako kulturalismotik. Hori dela eta, berarentzat berreuskalduntzea eta subiranotasun politikoaren berreskurapena txanpon beraren bi aldeak baino ez dira, elkarren baldintza ezinbestekoak, erabat bereiztezinak, hots, nazio gisa dugun eskubide politikoak euskararen existentziatik eratortzen dira, edota, euskara existitzen ez den lekuetan, berau berreskuratzeko dagoen borondate politikotik (autodeterminazioaren bidez adierazia).

Gauzak horrela, garbi dago oinarri

etnikoak huts eginik ere posible dela gure naziotasuna aldarrikatzea, herria autodeterminazioaren alde paratzen den heinean. Eta paratzen ez bada? Esana dagoenez, gure iruzkin xume honen epaia analisi sakonago batek ezeztatzen ez duen bitartean, Txillardegiren arabera hori gertatzen bada herria alienaturik dagoelako da (eta ez, inolaz ez, modako kontzeptu lauso baten arabera, Euskal Herria oso "plurala" delako). Euskal herritarren erdiak (gutxienez, eskualde askotan erabateko gehiengo direlarik) alienatutzat jotzeak ekar dezakeen eskizofreniaz, berriz, txintik ez.

Azken orriak bereziki larritzat jotzen duen problema bati eskaintzen dizkio: etorkin espainolak. Gai zaila, zinez, esplizitoki berak aitortzen duen gisan:

Hor problema latza dagoela gogoraztea ez da batere alarmismo merkea. Batez ere alderdi anti-euskaldunek etengabe giza-multzo horrekin egiten duten joko politiko lotsagabea kontutan hartzen bada (316. or.).

Zehaztaperen legalista batzuk gorabehera, soluzioa erabat egokia da: integrazioa, baldintzarik gabeko euskal hiritartasuna lagun; eta bereziki azpimarragarria: arrazakeriazko salaketa interesatu (eta hipokrita, erantsiko nuke neuk) guztien aurkako protesta ozena. Baina berriro ere, teoriaren ondoren, galdera praktikoa: «Zer hautu egin behar du etorkinak?» (316. or.). Ez dut erantzun garbirik aurkitu; horren ordez, Txillardegik bere esperientzia pertsonala (bere burua) eskaintzen du adibidetzat:

Nik hautua egin nuen: euskalduna eta abertzalea izatea (...) Baina nik hautua egin nuen gaztetan herri zafratu eta iraindu honen alde (318. or.).

Ez dizkigu argitzen bestelako hautu baten ondorio praktikoak (adibidez, eta berak esplizitoki pasarte batean aipatzen duenez (126. orr.), bere anaiaren hautuaz). Horrela bukatzen da liburua.

Iruzkin hau amaitzeko, Txillardegiren pentsamenduaren interpretazio sakon eta sistematikoago baterako abiapuntu bat eskaini nahiko nuke. Intelektualen artean ohizkoa izaten da norbere esperientzia bitalen eta bere pentsagaiaren arteko transposizioa, hots, nork bere bizitzako arazo eta kezka maila intelektual batera proiektatzea arazo orokor bihurtuz. Horrela, eta Txillardegik berak finkatzen duen esparrutik atera gabe, aski da Bertrand Russellen autobiografia irakurtzea haurtzaro eta gaztaroko bizipenak eta hautuak bere pentsamenduan izan zuten garrantziaz jabetzeko; era berean, ezaguna da existentzialisten artean nork bere bizipenei emandako garrantzia pentsagai gisa: ildo horretan kokatzen da Sartreren "engaiamendua". Baina Txillardegiren kasuan, dudarik gabe, eraginik indartsuena Unamunorena da, berau baita aberriaren arazoak bere bizitza pertsonalarekin estuen identifikatu zituen intelektuala, bere burua ia-ia mesias baten gisa aurkeztuz (bere patu pertsonala eta Espainiakoaren artean ez zuen inolako ezberdintasunik ikusten); Txillardegi era horretako muturkerietara iristen ez bada ere (nik behintzat ez dut mesianismorik aurkitzen bere pentsamenduan), adierazgarria da bere bizitza pertsonala aurkeztea inmigranteen arazo itzel eta korapilatsua- ren aurrean erantzun bakartzat. Erreparorik gabe esan dezakegu hori egitean, intelektual tipikoaren jarrerak adierazten ari dela.

Hortaz landara, arrazoi franko

legoke interpretazio honetan sakontzeko: ezaguna da Unamunoren pixua bere nobelagintzan eta, era berean, zenbait aipamenetan (140-144. or.) aitortzen digunez, berari zuzendu zizkion Txillardegi gazteak bere lehenengo lan serioak (bere lehenengo artikulua zientifikoa, bere lehenengo hitzaldia). Orogen buru, hala ere, bien bizitzek badute funtsezko antzik: klase ertain urbanoko guraso euskaldunak (bakarra, Txillardegiren kasuan) baina "pragmatikoak" (hau da, euskarari inolako baliorik ikusten ez ziotenak, eta ondorioz, erdaltzaleak); biak haurtzaroan gerraren esperientzia bizitakoak, oraindik egoera horretaz erabat jabetzeko adinik gabe; biak ikasketa unibertsitarioak etxetik kanpo (Madrid eta Bilbo) burututakoak; biak giro erdaldun batean hazitakoak, baina euskara modu marginal batean present zegoelarik halaber; biak irakurzaleak eta kezka filosofiko eta politikoz beteak nerabazarotik; biak euskaldunberriak ahalegin pertsonal oso gogor bati esker, inguruan euskara gainbehera zetorren unean eta beren seta zelebrekeriatzat ikusia izango zelarik (susmatzen dugu); biak euskara eta aberriaren aurkitzaileak nerabezaroan, geroztik bata zein bestearen alde bizi osoa eskainitakoak (Unamunok Salamancan beste hizkuntza bat eta beste aberri bat aurkitu bazuen ere, lehenago euskaltzale eta "abertzale" izana zen); biak hizkuntzaz bereziki kezkatuak, beren nortasun propio eta aberriarenaren funtsa bihurtu arte, beste edozeren gainetik; biak nobelagile, saiogile eta kazeta-artikulu ugariren egileak (hortaz gain, Unamunok poesia idazten du eta Txillardegik, aldiz, pianoa jo); biak hizkuntzalariak eta unibertsitateko irakasleak; biak politikan ibiliak eta diputatu (edo senatore) izatera iritsitakoak; biak atzerriratuak eta

Hendaian bizitakoak; biak hizlari probokatzaile eta bazter-nahasle ospe nabarmenekoak (eztabaida dialektikoaz ari naiz, noski); finean, eta hau ez da inola ere kasualitatea, irakurriz gero Unamunoren purrustadak Espainiako Hizkuntz-Akademiaren gainean, eta Txillardegirenak Euskaltzaindiari buruz, derrigorrezkoa da barre egitea, hain baitira antzerakoak. Zinez, mereziko luke honetan sakontzeak.

Ezin bukatu, hala ere, hitz pare bat esan gabe liburu honetan dagoen hutsune haundienaren gainean, borroka armatuari buruzkoa, alegia. Bi aipu motz baino ez dugu aurkituko, liburu

osoan, erabat zentrala izan den eta den gai honen inguruan (309. eta 310. or.). Biak, nolabait, bere legitimotasuna defendituz, garbi esaten ez bada ere. Baina nabarmena da gai honek kapitulu oso bat beharko lukeela. Zein da Txillardegiren iritzia arazo honetaz? Zergatik ez du esaten? Espainiako legeriaren mugak estuegiak ote dira era honetako eztabaida baterako (eta hartara, justifikaturik legoke bere isiltasuna) edo, beste testuinguru batean esaten digun bezala, «autozensura ez baita gaurkoa bakarrik ezker abertzalean!» (295. or.). Geroak erranen.

*Pruden Garzia
Gasteiz, 95eko urtarrila*